

DENONTZAT, DENEKIN

Gure produktua pertsona guztientzat baliagarria izan daitekela uste dugu, munduko biztanleria osoa ari delako gaitz hau sufritzen. Esan gabe doa, baina denok dakigun bezala, umeek ez dute helduek duten kontzientziazio-maila berdina ez dutelako oraindik gaitasun hori daukaten adinarengatik. Baina egia da ume hauek modu pasiboki erabiliko luketela produktu hau. Hau da, umeak toallero hau zuzenean erostera joan arren, haien gurasoak egongo litzateke kezkatuta familiaren osasunaren inguruan. Beraz, produktua etxeko nagusiei bideratuta egongo litzateke baina familia guztiak erabiltzeko. Gure bezeroak familiak izango dira batez ere, baina beste alde batetik, ostalaritza sektorekoak ere, izan ere, beraiek haien tabernetan segurtasuna bermatu nahiko dute, ondoren bezeroak lasaitzeko eta seguruago sentitzeko.



Erabiltzeko tokien inguruan, ba bereziki etxebizitzetara, tabernetara eta eskoletara bideratuko genuke. Etxebizitzetan adibidez, familiaren pentsatzeko moduaren inguruan izango litzateke. Hau da, familia batzuk besteak baino kontzientziatuago daude. Telebistan entzuten den bezala, badago jendea zeinek gaixotasun hau ez dela existitzen diotenak. Kasu honetan adibidez, familiak ez luke gure produktua erosiko. Beste kasu batzuk badira, non familia oso kontzientziatua dagoen bete beharreko segurtasun-neurrien inguruan. Horregatik, kasu honetan, familia honetako gurasoak izango litzateke gure bezeroak. Lehen aipatutakoa kontuan hartuta, paperaren erabilera gutxitzea izango litzateke beste abantaila bat. Beraz, tabernetan eta eskoletan hainbeste jende dagoenez, gure produktua oso baliagarri egingo litzaieke. Honetaz gain, geroz eta jende gehiago kexatuta daude aldaketa klimatikoaren inguruan. Beraz, ziur gaude pertsona hauek gure beste bezero mota bat izango liratekela.

